



DONOSTIA OSPITALEA

50 URTE ANOS

HOSPITAL DONOSTIA



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



OSASUN ETA KONTSUMO
SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD
Y CONSUMO



DONOSTIA OSPITALEA

50 URTE
AÑOS

HOSPITAL DONOSTIA



2001eko martxoan sortu zen Donostia Ospitalea, Zorroaga gainean zeuden Osakidetzako ospitaleak elkartzearen ondorioz. Donostia Ospitalearekin abiatu zen prozesua, hark jarri baitzituen Amara, Arantzazu eta Gipuzkoa zentroak —eta baita laborategi bateratua ere— elkartzeko oinarriak. Modu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko ospitale handienetakoa bihurtu zen, potentzial ikaragarria eta etorkizun ezin hobea zituena.

Idea ez zen berria. Izan ere, 30eko hamarkadan Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak, Ongintza Batzordeko kide zirela, leku bera aukeratu baitzuten hiriburuaren eta probintziaren premiak asebeteko zituen ospitale berriaren kokalekutzat. Lanak hasi eta eraikinaren egitura osoa ere amaitu zen arren, gerrak eraikuntza bertan behera uztea eragin zuen.

Gero, baina bakoitzak bere aldetik, instituzioek berriro heldu zioten proiektuari. Aurrena zentro psikiatriko bat sortu zen, gero tuberkulosiak jotako gaixoentzako ospitale bat, gero Ospitale Probintziala eta, azkenik, Arantzazuko Ama Ospitalea.

80ko hamarkadan, hiru ospitaleak Osakidetza osasun-sare publikoan sartu ziren, eta 90eko hamarkadan, estamentu profesional guztietako ordezkariak parte hartu zuten prozesuaren ondoren, erakunde bakarra eratu zuten: lehen aipaturiko Donostia Ospitalegia, hain zuzen ere. Azkenik, 2001eko apirilaren 26an Osakidetzako Administrazio Batzordeak hartutako erabakiaren ondoren, ofizialki aurkeztu zen Donostiako Miramar jauregian Donostia Ospitalea. XX. mendeko 30eko hamarkadan sortutako proiektua 70 urte geroago osatu zen, hain zuzen ere, mende eta milurteko berriaren hasieran.

Hori izango litzateke, laburtuta, gure herrialdeko osasunbidearen buru den osasun-erakunde moderno eta kementsuan finkatutako berrogeita hamar urte horien historia laburra. Laburpen txiki horrek gaur egunera iritsi arte parte hartu duten erakundeen nondik norakoa isla dezake —argazki baten moduan ia-ia—. Baina ez litzateke egiazko argazkia izango, bizia eta arima faltako lituzke, izan ere, Donostia Ospitalea, gaur egun, Gipuzkoako bizimoduan erabat integratutako zentro ospetsua bada, bere erritmoan dabilen eta berrikuntza- eta ikerketa-prozesuak burutzen dituen zentroa bada, guk gaur egun gertakari hau ospatu ahal izateko euren aletxoak ekarri duten eta euren ahalegina, lana eta arreta jarri dituzten jarduera askotariko milaka lagun eta profesionalak bertan parte hartu dutelako eta oraindik ere parte hartzen dutelako da.

Liburu honek pertsona horien ekintza onak jaso ditu eta omenaldi txiki bat izan nahi du urteetan zehar erakunde honetatik igaro direnentzat eta gaur egun haien ibilbideari jarraitzen diotentzat eta, baita oroigarria ere etorkizunean lan horretan jarraituko dutenentzat.

En marzo de 2001 se creó el Hospital Donostia como resultado de la fusión de los hospitales de Osakidetza ya existentes en el Alto de Zorroaga, proceso iniciado con el Complejo Hospitalario Donostia que puso las bases del encuentro entre los tres centros: Amara, Arantzazu y Gipuzkoa, además del laboratorio unificado, constituyendo así uno de los mayores hospitales de la Comunidad Autónoma Vasca con un enorme potencial y un inmejorable futuro.

La idea no era nueva, ya que en los años 30 el mismo emplazamiento fue elegido por la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de San Sebastián, que formaban parte de la Junta de Beneficencia, como el lugar idóneo para ubicar un nuevo hospital que atendiese las necesidades tanto de la capital como de la provincia. Sin embargo, aunque se iniciaron las obras, e incluso se llegó a terminar la estructura completa del edificio, la guerra obligó a paralizar la construcción.


Después, aunque de forma independiente, las instituciones fueron retomando el proyecto creándose primero un centro psiquiátrico, luego un hospital dedicado a atender a enfermos de tuberculosis, más tarde el Hospital Provincial y finalmente la Residencia Sanitaria Nuestra Señora de Aránzazu.

En los años 80, los tres centros hospitalarios se integraron en la red pública sanitaria, Osakidetza, y ya en los 90, tras un proceso en el que participaron activamente representantes de los diferentes estamentos profesionales, se integraron en una única organización en el ya citado Complejo Hospitalario Donostia. Finalmente, tras el acuerdo del Consejo de Administración de Osakidetza, el 26 de abril de 2001 se presentaba oficialmente en el Palacio Miramar de San Sebastián el Hospital Donostia. El proyecto gestado en los años 30 del siglo XX tomó forma 70 años después justo cuando se iniciaban los primeros compases del nuevo siglo y milenio.

Esta sería, en síntesis, la historia concisa de estos cincuenta años que se han consolidado en una organización sanitaria moderna, pujante, a la cabeza de la sanidad en nuestro país. Este breve resumen puede reflejar -casi fotográficamente- el devenir de las instituciones que han ido sumándose para llegar hasta nuestros días, pero no sería real, le faltaría la vida, el alma, porque si el Hospital Donostia es hoy un centro de prestigio totalmente integrado en la vida guipuzcoana, latiendo a su ritmo, liderando procesos de innovación e investigación, es porque en su seno han participado, y lo siguen haciendo, miles de personas, de profesionales de las más variadas actividades, que han puesto su grano de arena, su esfuerzo, su trabajo, sus desvelos, para que hoy podamos celebrar esta efeméride.

Este libro recoge su hacer, su bien hacer, y quiere ser un sencillo homenaje a cuantos han pasado por esta institución a lo largo de los años, a quienes hoy siguen su trayectoria, y un recordatorio para quienes en el futuro continúen en la tarea.

Carlos Zulueta
Donostia Ospitaleko Zuzendari Kudeatzailea
Director Gerente del Hospital Donostia



1813ko abuztuaren 31n, britainiar eta portugaldar soldaduak, Wellington buru zutela, jo eta su, sartu ziren hirira. Donostiarrek hiria berreraikitzea erabaki zuten. 50 urte geroago harresiak bota eta hiri berria diseinatzen zuen zabalgunea marraztu zen. El 31 de agosto de 1813 las tropas inglesas y portuguesas al mando del general Wellington entraron en la ciudad a sangre y fuego. Los donostiarros decidieron reconstruirla. Cincuenta años más tarde se derribaban las murallas y se trazaba el nuevo Ensanche que diseñaba una nueva ciudad.

1813ko irailaren 8an donostiarren ordezkari bat Zubietako Aizpurua baserrian bildu zen hiria berreraikitze asmoz. Gotorlekua hartu zuen soldadu-talde frantsesa menderatzeko soldadu ingeles eta portugesez egindako ahaleginari aurre egin zioten harresiak eraistea ekarri zuen proiektu handizaleari ekin zioten. Donostiak plaza militar izaera galtzea izan zen lehenengo ondorioa eta eremuka eta auzoka ezin hobeto antolatutako hiri modernoa diseinatzeari ekin zioten. Plano gainean marraztu ziren eremu eta auzoen egitekoak eta xedeak, beste batzuen artean arreta sanitarioa. Horrela sortu zen gaur egun ezagutzen dugun hiria.

Ospitale-jarduerari buruzko lehen albisteek adierazten digute lazareto izenarekin ezagutzen zen legenardunentzako ospitale bat zegoela San Martin auzoan, hau da, harresietatik kanpo. San Lazaro ospitalea 1512an erre zen hiriak bere historian zehar jasan dituen borroka ugarietako batean izandako setioaren ondorioz. Urte batzuk geroago beste bi ospitale eraiki ziren. Bata San Martin auzoan eraiki zen eta, bestea, Santa Katalina elizaren ondoan, itsasontziak eraikitzen ziren ontziolaren aldamenean. Bigarren ospitale horrek errege-baldintza bat zuen: harresitik 480 urratsera eta kareorearekin eraikitzeakoa, hiria defendatu beharra izaten bazen berehala eraitsi ahal izateko. Ospitalea 1719an eraitsi zuten, elizarekin batera.

XVI. mende bukaeran, Donejakuera Kostako bidetik joaten ziren erromesentzako ospitale bat zegoen, bidaiari batzuk Frantziako Bidetik joaten ziren arren San Adriango tunela igarota.

1714. urtean, Felipe V.aren babespean, Erregeren Erruki-etxea sortu zen, garai hartako osasunbidearen ardatz nagusia.

Lurraldearen enparuari dagokionez, Tolosan ospitale bat izan zen parroki elizaren aldamenean eta 1774an berri bat eraiki zen, Ongintza ere hartzen zuena. Ospitale hori sute batek suntsitu zuen 1813an eta 1831n berreraiki zuten.

XIX. mendearen erdialdera, beraz, osasun publikoaren zentro nagusiak Tolosako ospitalea eta hiriburuko biak ziren. San Martin auzokoa, oraindik zutik zegoena, baztanga eta garai hartan ohikoak ziren beste gaixotasun batzuk zituztenentzat zen bereziki.

Bestalde, Santa Katalina ospitalea desagertu zenean, beste osasun-etxe bat eraiki zen hantxe inguruan. Hiriko Ongintza Batzordeak kudeatzen zuen gaur egun Atotxa den tokian kokatutako San Frantzisko ospitalea. Hantxe zegoen Erruki-etxea ere.

Quando el 8 de septiembre de 1813 una representación donostiarra se reunió en el caserío Aizpurua de Zubieta para reconstruir la ciudad, acometieron un ambicioso proyecto que se supuso el derribo de las murallas que habían resistido el ímpetu bélico de los soldados ingleses y portugueses en su afán de acabar con la guarnición francesa que había tomado la fortaleza.

San Sebastián perdió su carácter de plaza militar y se lanzó a diseñar una ciudad moderna perfectamente ordenada por zonas y barrios en los que se dibujó sobre plano las funciones y destino de los mismos, entre ellos la atención sanitaria. Nació así la ciudad que hoy conocemos. Las primeras noticias que se conocen de actividad hospitalaria nos indican la existencia de un lazareto o leprosería existente en el barrio de San Martín y, por tanto, fuera del recinto amurallado. El Hospital de San Lázaro se quemó en 1512 a causa del sitio de la villa en las múltiples contiendas que ha padecido a lo largo de su historia.

Unos años más tarde, se contruyeron dos nuevos hospitales. Uno en San Martín y otro junto a la iglesia de Santa Catalina, al lado del astillero donde se construían los navíos, con la condición real de que dicho edificio se levantase a 480 pasos de la muralla y edificado con argamasa, de manera que pudiera ser derribado con prontitud en caso de ser necesaria la defensa de la plaza. Este hospital fue demolido junto a la iglesia en 1719. También se conoce la existencia, a finales del siglo XVI, de un hospital para peregrinos que se dirigían hacia Santiago de Compostela por la Ruta de la Costa, aunque algunos de los caminantes también accedían al Camino Francés a través del túnel de San Adrián.

En 1714, bajo la protección de Felipe V, se fundó la Real Casa de Misericordia, auténtico eje central de la sanidad de la época.

En cuanto al resto del territorio, en Tolosa existió un hospital junto a la iglesia parroquial y en 1774 se edificó uno nuevo que albergaba también la Beneficencia. Se destruyó en 1813 debido a un incendio y fue reconstruido en 1831.

A mediados del siglo XIX, la sanidad pública se centraba, por tanto, en el hospital de Tolosa y los dos existentes en la capital donostiarra. El de San Martín, todavía en pie, estaba especialmente dedicado a enfermos de viruela y otras epidemias frecuentes en aquellos tiempos.

Por otra parte, se levantó uno nuevo centro sanitario al desaparecer el de Santa Catalina en la misma zona. La Junta de Beneficencia de la ciudad gestionaba el Hospital de San Francisco, ubicado en lo que es hoy Atotxa, en el que también se encontraba la Misericordia.

San Antonio Abad ospitalea

XIX. mende bukaeran, garai hartako aurrerapen teknikoekin eta premiekin bat zetorren ospitale berri bat eraikitzeke premia ikusi zuen Ongintza Batzordeak. Beste ezer baino lehen, zentro berria eraikitzeke lursail egokia aukeratu zuen. Hainbat leku aztertu ziren. Aurrena Pasaiarekin lotzen zuen Errege Bidea izan zen. Groseko hareatzan zegoen, egungo Santa Katalina zubia dagoen inguruan. Kokapen hura baztertu egin zen eta Aldakoneako "Olivasene" izeneko tokian kokatutako batzordearen jabetzako lurak proposatu ziren. Aukera hura ere baztertu egin zen orubea ez zelako nahiko handia proiektuan aurreikusitako 200 oheak hartzeko.

Azkenik, leku aproposa aukeratu zen: Manteo baserriko lurak Groseko hareatzan, Okendo almirantearen jaiotetxearen ondoan.

Lekua egokienezkotzat jo zen hiriaren iparraldean zegoelako: "Hiriaren iparraldean egotea gomendatzen zen, bertatik aska zitezkeen miasmak haizeak hirirantz eramanez zitzan". Halaber, kokapenari buruzko txostenak zioen Manteo leku garaian zegoela, inguruan iturriak zituela, hareatsua eta eraikitzeke erraza zela, gehiegizko hezetasunik ez zegoela eta komunikazio onak zituela hainbat bide eta errepide zituelako bertara iristeko. Gainera, hareatzaren inguruan Groseko pinudiak zeudela eta epidemiaren bat sortuz gero, kutsatuak hara eramateke aukera zegoela azpimarratzen zen.

Eraikina Donostiako garai hartako arkitekto ospetsuenetako batek proiektatu eta eraiki zuen, hiriaren zabalgunean ere parte hartu zuenak, Jose Goicoak hain zuzen ere. Frantziako Lariboisière ospitalearen ereduari jarraitu zion, Galo Aristizabal medikuaren laguntzarekin. 200 ohe hartzeko moduko ospitalea proiektatu zen, modu honetan banatuta: gizonetzako medikuntzako erizaintza 24 oherekin eta emakumeentzako medikuntzako erizaintza beste 24 oherekin. Bi areto horietan bina gela aurreikusi ziren gaixotasun kutsakorren kasuak eta eldarniozkoak isolatzeko. Gizonetzako kirurgia-aretoak 16 ohe zituen eta kopuru bera emakumeentzakoak. Bietan zeuden gangrena kasuetarako eta beste gertaera batzuetarako gelak ere. Ebakuntza egindakoentzako gelak ere baziren, hiruzpalau oherekin. Eritasun benereoetarako areto espezifikoak ere prestatu ziren: 10 ohe gizonetzak eta kopuru bikoitza emakumeentzat.



El Hospital San Antonio Abad

A finales del siglo XIX, la Junta de Beneficencia vio la necesidad de construir un nuevo hospital más acorde con los avances técnicos y las necesidades del momento. Lo primero fue elegir el terreno propicio para levantar el nuevo centro. Se estudiaron varios lugares. El primero fue el Camino Real, que comunicaba con Pasaia, en los arenales de Gros, en un lugar que podemos situar cerca del actual puente de Santa Catalina. Se desechó el emplazamiento y se propuso unos terrenos propiedad de la junta, en "Olivasene", en Aldakonea, pero también se descartó porque el solar no

era suficientemente como para albergar las 200 camas que contemplaba el proyecto.

Finalmente, se decidió el lugar idóneo: los arenales del barrio de Gros del caserío Manteo, junto a la casa natal del almirante Okendo.

El lugar se considera el más idóneo por estar lo más al norte de la ciudad ya que "esta es una de las cosas más recomendadas para que las miasmas que se puedan desprender no sean arrastrados por el viento a la ciudad". El informe sobre el emplazamiento destaca igualmente que Manteo está en una zona alta, con fuentes cercanas, arenoso, fácil para construir, no hay excesiva humedad y cuenta con buenas comunicaciones con caminos y carreteras de acceso. Y además, en las inmediaciones del arenal estaban los pinares de Gros, con la posibilidad, se recalca, de que en caso de epidemias se puedan alojar allí a los contagiosos.

El edificio fue proyectado y construido por uno de los arquitectos donostiarras más prestigiosos de la época que participó en el famoso Ensanche de la ciudad: José Goicoa, que siguió el modelo del hospital francés Lariboisière, con la colaboración del médico Galo Aristizabal. El centro se proyectó con 200 camas con la siguiente distribución: enfermería de Medicina para hombre con 24 camas y enfermería de medicina para mujeres con otras 24 camas, con la previsión de contar en ambas salas con un par de cuartos en los extremos para aislar los casos contagiosos o por delirio. La sala de cirugía para hombres tenía 16 camas y el mismo número para mujeres, con cuartos previstos para gangrenas y otras eventualidades. También se pensó en cuartos para operados con 3 o 4 camas. Se dispusieron igualmente salas específicas para enfermedades venéreas, 10 camas para los hombres y el doble para las mujeres.



Beste 20 ohe jarri ziren amatasun-sailean, eta gela bat erditzeetarako eta pixka bat urrundutako beste 4 ohe erdiberrientzako. Umeentzako, eriondoan zeudenentzako eta azaleko gaixo kronikoentzako aretoak eta oheak ere baziren. Baita burutik nahastutako gaixoen behaketarako sail bat eta presoentzako 8 ohe zituen areto bat ere. Pertsona nabarmenentzako saila ere bazegoen.

Ospitale berria, Gipuzkoako Ospitale Probintziala izango zenaren aurrekaria, 1888ko urtarrilaren 20an inauguratu zen, hau da, San Sebastian egunez, San Antonio Abad Ospitale Zibila izenarekin. Manteoko Ospitalea izenaz ere ezagutzen zen. Lehenengo zuzendaria eta medikuntza-aretoko burua Jose Zelaia izan zen eta sarrera edo guardiako lehenengo medikua Luis Alzua Orbegozo.

Urte gutxi batzuk lehenago, Donostian azaleratzen ari zen turismoak eta osasun-sorospen hobea eskaintzeko premiak bultzatuta, Udal Sorospen Etxea sortu zen 1881ean Eskolen Plazatxoan. Praktikante bat egoten zen Sorospen Etxean. Bost urte geroago mediku bat jarri zuten.


Garai hartan, Santa Ageda Bainuetxe ospetsua gaixo mentalentzako zentro bihurtu zen Cánovas del Castillo lehen ministroa hango instalazioetan erail zutenean. San Juan de Dios Ospitale Ordenako Aita Mennik psikiatriko bihurtu zuen, baina garai hartan oso erabilia zen manikomio hitza saihesteko Osasun Etxe deitu zion.

Otras 20 camas se dedicaron al departamento de maternidad, con un cuarto para el parto, y otras 4 camas, algo separadas, para púerperas. También existían salas y camas para niños, convalecientes, enfermos crónicos de la piel así como un departamento para observar enfermos sobre sus facultades mentales y otro de 8 camas para presos. Tampoco faltaba un departamento para distinguidos.

El nuevo hospital, precedente del futuro Hospital Provincial de Guipúzcoa, se inauguró el 20 de enero de 1888, fiesta de San Sebastián, con el título de Hospital Civil de San Antonio Abad, también conocido como Hospital de Manteo. El primer director y jefe de Sala de medicina fue Juan José Celaya y el primer facultativo de entrada o de guardia, Luis Alzúa y Orbegozo.

Unos pocos años antes, también guiados por el turismo emergente en la capital donostiarra y la necesidad de ofrecer una mejor asistencia sanitaria, se creó, en 1881, la Casa de Socorro Municipal en la Plazuela de las Escuelas con un practicante. Cinco años después se dotó de un médico al establecimiento.

También por esta época, el famoso Balneario de Santa Águeda pasó a constituirse en centro de atención a enfermos mentales al producirse en sus instalaciones el asesinato del primer ministro Cánovas del Castillo. El padre Menni, de la Orden Hospitalaria de San Juan de Dios, lo convirtió en psiquiátrico, aunque lo denominó Casa de Salud para evitar el término manicomio, muy empleado en aquellos tiempos.





1888ko urtarrilaren 20an, San Antonio Abad ospitale zibila –probintziakoaren aurrekari– inauguratu zen. “Manteokoa” izan zen bere ezizena, Uliako magal horretan baitzegoen, eta garai hartan garrantzi handikoa izan zen. Baina klinika pribatuen garaia ere izan zen XX. mende hasiera eta ongintzakoak ere izan zuen garrantzia “la Gota de Leche” entzutetsua, kasu.

El 20 de enero de 1888 se inauguró el Hospital Civil San Antonio Abad, precedente del futuro Hospital Provincial. Se le conoció también como Hospital de Manteo porque estaba ubicada en terrenos de ese nombre en la falda de Uliá y fue un hito en esa época. Pero los comienzos del siglo XX se caracterizaron por la creación de clínicas privadas, pero también dispensarios y centros de carácter benéfico como La gota de leche.



Donostiaren hazkunde handia eta mende-hasieran Europan osperik handienetarikoa zuen hiriburu turistiko bihurtu izana kontuan hartuta, agintariak oso azkar konturatu ziren San Antonio Abad ospitaleak ez ziela erantzuten eskakizun berriei, ez espazioari zegokionez eta ez instalazioei zegokienez. Hala, Donostiako Udalak eta Aldundiak, Ongintza Batzordeko kideak biak, 600 ohe hartzeko moduko osasun-zentro berri bat sortzea erabaki zuten 1932an. Aukeratutako lekua Amara gaina izan zen, garai hartan periferian zegoena, erdigunetik urrun. Osasun-zentro berria kokatzeko leku aproposa zen, izan ere, muino txiki batean, gaixoentzako gomendagarria zen ingurune naturalean baitzegoen.

Ongintza Batzordeak izendatutako lantalde batek Europako hainbat ospitale bisitatu zituen eta, batik bat, Lyongo Herriot ospitaleari erreparatu zion. Agirrebengoa eta Urkola arkitektoek sinatu zuten proiektua. Osasun eta antolaketa arloan Manuel Usandizaga medikuak eman zien aholku. Aurrekontua 12 milioi pezetakoa izan zen, gaur egungo 71.500 euro gutxi gorabehera.

Aurreikusita bezala hasi ziren lanak eta 30eko hamarkadaren erdi aldera jasota zegoen hormigoizko egitura hiria ikusteko leku aproposa den muinoan. Gerra zibilak, ordea, lanak geldiaraztea ekarri zuen, eta ondoren ez ziren berriro hasi. Donostia eta Gipuzkoarako ospitalearen proiektu handia bat-batean gelditu zen.

Klinika pribatuak eta beste instituzio batzuk

Joan zen mendearen hasierako ekonomiaren gorakadak eta hiriaren hazkundeak jarduera sanitario pribatuaren sorrera eragin zuten. Donostian eta Gipuzkoa osoan sortutako klinika ugarien sorreran islatu zen hori. Aurrena inauguratu zena "Villa San Ignacio" izenekoa izan zen, 1906an. Bere mediku-taldeak ospe handia eman zion, batez ere Benigno Oreja urologoak eta Luis Urrutia digestio-aparatuko adituak.

Pixkanaka-pixkanaka klinika gehiago sortu ziren, esaterako, Michel Leremboure mediku frantsesaren Perpetuo Socorro klinika; Nuestra Señora de las Mercedes klinika 1913an sortu zen eta hura ere Uliako hegalean zegoen. Huizi eta Egaña doktoreek Ategorrietako etxe bat egokitu zuten Manteo ospitalera joan ezin zuten gaixo pribatuak zaintzeko; San Jose klinika 1922an, Oiartzungo San Esteban 1924an, San Antonio Atotxa gainean...

Horiei gehitu behar zaizkie Tolosako Nuestra Señora de Izaskun, San Kosme eta San Damian eta Nuestra Señora de la Asunción klinikak eta Donostiako Pilar klinika eta Nuestra Señora del Koro klinika. Ez dira ahaztu behar 30eko hamarkadan ateak ireki zituzten beste instituzio batzuk, handitzen ari zen eta hainbat patologiar, esaterako, tuberkulosiari edo gaixotasun infekziosoei aurre egin behar zien biztanleriaren premiei erreparatuta.

El fuerte crecimiento de San Sebastián y su transformación a comienzos del siglo en una de las capitales turísticas europeas con mayor prestigio propiciaron que las autoridades entendieran pronto que el Hospital San Antonio Abad no respondía ya a las nuevas exigencias, no solo en lo relativo al espacio sino tampoco en cuanto a las instalaciones.

De esta manera, el ayuntamiento donostiarra y la diputación, ambos en la Junta de Beneficencia, decidieron en 1932 crear un nuevo centro sanitario con capacidad para albergar 600 camas. El solar elegido fue el Alto de Amara, en aquellos tiempos una zona periférica, alejada del centro y por tanto idónea para la ubicación del nuevo centro sanitario en una pequeña colina, con un entorno natural aconsejable para los enfermos.

Un comité nombrado por la Junta de Beneficencia visitó varios hospitales europeos y se fijó especialmente en el Herriot de Lyon. El proyecto fue firmado por los arquitectos Aguirrebengoa y Urcola, siendo asesorados en el aspecto sanitario y de organización por el médico Manuel Usandizaga. El presupuesto se elevó los 12 millones de pesetas, unos 71.500 euros actuales.

Las obras comenzaron según lo previsto y a mediados de los años 30 la estructura de hormigón se levantaba ya sobre la pequeña colina desde la que se divisa la ciudad, pero la guerra civil obligó a paralizar los trabajos, que ya no se reanudaron. El gran proyecto de hospital para San Sebastián y Gipuzkoa se frenó en seco.

Las clínicas privadas y otras instituciones

Mientras la Junta de Beneficencia proyectaba el gran hospital, a comienzos del siglo pasado el auge económico y el crecimiento de la ciudad supuso el nacimiento de una actividad sanitaria privada que se reflejó en la creación de numerosas clínicas tanto en San Sebastián como en el resto del territorio. La primera que se inauguró fue "Villa San Ignacio", en 1906, que gozó de un gran prestigio por su cuadro médico, especialmente el urólogo Benigno Oreja y el digestólogo Luis Urrutia.

Poco a poco surgieron la Clínica del Perpetuo Socorro del médico francés Michel Leremboure; la de Nuestra Señora de las Mercedes -1913-, también en la falda de Ulía, en la que los doctores Huici y Egaña acondicionaron una villa en Ategorrieta para atender a sus enfermos privados que no tenían acceso al Hospital de Manteo; San José -1922-, San Esteban en Oiartzun en 1924, San Antonio en el Alto de Atotxa...



Testuinguru horretan, hainbat instituzioren sorrera nabarmendu behar da: Gota de Leche, haur-hilkortasuna murrizteko 1903an sortu zen pediatriako kontsulta edo Gipuzkoako Institutu Erradio-Kirurgikoa, minbiziaren aurkako Espainiako bigarren zentroa, 1933an sortutakoa, San Antonio Abad klinikarentzako baztertutako leku berean, hain zuzen ere.

Maria Cristina erreginak Donostian igaro ohi zuen uda XIX. mende-bukaeratik aurrera eta hiriko erizain-eskolarako ospitalea sortzeko desioa bete zuen Antigua auzoko txalet txiki batean inauguratu zuenean. Ospitalea berak finantzatu zuen eta behartsuentzako doaneko anbulatorioa zuen.

Donostiako Ospitale Militarra kirurgiako ekipamendurik ez zuen eta urgentziatzeko kasuak bakarrik hartzen zituen eraikin apala zen 30eko hamarkadan. San Bartolome gainean zegoen, geroago, Aldapetan Polizia Nazionalaren kuartela eraiki zen leku berean. Prestazio eta leku gutxi izateak ospitale militar gisa Atotxako Udal Eskolen eraikina erabiltzea eragin zuen, 1936an gerra zibila piztu zenean. Instalazio medikoen premiak Londres eta Ingalaterrako Hotela eta beste eraikin batzuk xede horretarako erabiltzea ekarri zuen. Odol-ospitaleetako bat leku horretan ezarri zen.

Ospitaleko gastuei aurre egiteko baliabide ekonomikoak zituzten pertsonak baziren arren, herritar askok eta askok ez zuten nahikoa baliabide. Egoera hori arindu nahian, ongintza eta sorospenerako hainbat zentro sortu ziren Gipuzkoa osoan. Zenbait kasutan, filantroporen baten ekintzei esker sortu ziren. Matia Calvok, esaterako, behartsuei laguntzeko bi babes-etxe sortzeko dirua utzi zuen bere testamentuan. Bata Cadizen eta bestea Donostian. Donostiakoa 1889an inauguratu zen, Zapatari baserriko Lugaritzeko lurretan.


Ongintza Batzordeak beste zentro bat sortu zuen: Donostiako Reina Victoria babes-etxea, Erruki-etxe Santu gisa ezagunagoa izan zena. Zorroaga gainean zegoen eta adinekoak eta, bolada batez baita umeak ere, zaintzeko erabili zen. XX. mendeko ospitale-sorospeneko koadroa, batik bat Donostian zeuden anbulatorio ugariekin osatzen zen. Anbulatorio askotan klinika pribatuetakoa medikuek egiten zuten lan. Manteoko ospitaleak, bestalde, behartsuei laguntzen zien. Horien artean, Santa Isabel anbulatorioa zegoen, hasieran Larramendi kalean egon eta gero San Frantzisko kalera lekualdatu zen doako kontsultategia —Urbieta kalean eta San Bartolomen ere baziren beste batzuk—.

Posteriormente hay que sumar las de Nuestra Señora de Izaskun, San Cosme y San Damián y Nuestra Señora de a Asunción, todas ellas en Tolosa, la Clínica del Pilar en San Sebastián, Nuestra Señora del Coro, también en San Sebastián...

No hay que olvidar otras instituciones que abrieron sus puertas en los años 30 atendiendo las necesidades de una población en aumento enfrentada a patologías como la tuberculosis y enfermedades de tipo infeccioso. En este marco, hay que destacar la creación de la Gota de Leche en 1903 para frenar la mortalidad infantil, con un consultorio pediátrico, o el Instituto Radio-Quirúrgico de Guipúzcoa, el segundo centro anticanceroso de España, inaugurado en el verano de 1933, curiosamente en el lugar descartado para la ubicación del San Antonio Abad.

La reina María Cristina, que veraneaba en la capital donostiarra desde finales del siglo XIX, vio cumplido su deseo de fundar un hospital para escuela de enfermeras en esta ciudad al inaugurarlo en un pequeño chalé, en el barrio del Antiguo, que financió ella misma y que contaba con un dispensario gratuito para pobres.

Por su parte, el Hospital Militar de San Sebastián era en los años 30 un modesto edificio que no contaba con equipo quirúrgico y atendía solamente casos de urgencia, que se situaba en el Alto de San Bartolomé. Su falta de prestaciones y espacio disponible motivó en 1936, al estallar la guerra, se destinase para hospital militar el edificio de las Escuelas Municipales de Atocha. La necesidad de instalaciones médicas llevó a utilizar a tal fin edificios como el Hotel de Londres y de Inglaterra, en el que se estableció uno de los hospitales de sangre. Completan este cuadro de la asistencia sanitaria a comienzos del siglo XX los numerosos dispensarios que existían, especialmente en San Sebastián, muchos de ellos atendidos por médicos de las clínicas privadas o del Hospital San Antonio Abad, que atendían desinteresadamente a los pobres. Entre ellos, el Dispensario de Santa Isabel, consultorio gratuito primero ubicado en la calle Larramendi – aunque existían varios en la calle Urbieta y en San Bartolomé- y posteriormente traslado a la calle San Francisco.





*Marokoko gerrako soldatu zaurituak artatzeko, Casino-a, oraingo udaletxea, erabili zen, ospitale moduan. Tuberkulosiak jotakoak asko zirenez, zentro espezializatuak eraiki ziren, atzeko orrialdeko "Nuestra Señora de las Mercedes" delakoa bezalakoak.
La llegada de soldados heridos de la guerra en Marruecos motivó la utilización del Casino, actual ayuntamiento, como hospital. Además, la preocupación por las altas tasas de tuberculosis hizo construir centros especializados, como Nuestras Señora de las Mercedes de la página posterior.*

Tuberkulosiaren kontrako zentroak

Lehen egiaztatu ahal izan dugun bezala, garai hartan, osasun-agintarien kezka nagusietako bat tuberkulosiak jotakoen kopuru handia zen. Tisi eta izurri zuria izenekin ere ezagutzen zen tuberkulosia eta joan zen mende hasierako hilkortasun-tasaren arrazoi nagusietako bat zen. Botika berrien ikerketan egindako ahaleginez eta prebentziozko neurriez gain, hiri askok patologia hori zuten gaixoak soilik zaintzen zituzten zentroak sortzea erabaki zuten.

Donostia ez zen arazo horretatik kanpo geratu. Tuberkulosiaren Espainiako Nazioarteko II. Kongresua egiten zen bitartean, Alfontso XIII.ak Nuestra Señora de las Mercedes osasun-etxea inauguratu zuen 1912ko irailaren 15ean, Ubako Andre Mariaren ermitatik oso hurbil, Ametzagañan, gaur egun Loiola auzoa dagoen tokian. Osasun-etxea Tuberkulosiaren Kontrako Tokiko Batzordeak sortu zuen, garai hartan Donostiako alkate zen Jose Elosegiren ekimenez eta Argentinako euskaldun koloniaren diru-ekarpen handiarekin. Orduko prentsak hotel batekin konparatu zuen eraikin berria.

1931n, osasun-etxea Ongintza Batzordeari transferitu zitzaion. Ongintza Batzordeak, aldi berean, Tuberkulosiaren Kontrako Patronatu Nazionalari saldu zion 1942an eta, handik aurrera, emakumeak zaintzeko erabili zen. 1953an, Toraxeko Gaixotasunen Osasun-etxea inauguratu zenean, gero Amarako ospitale bihurtuko zena, eraikina Laguntza Sozialerako eman zen errentan eta han zeuden emakumeak Zorroaga gaineko zentro berrira eraman zituzten.

Nuestra Señora de las Mercedes osasun-etxeak emakumeak hartzen bazituen, 1928an, gizonezkoak hartuko zituen osasun-etxea eraikitzeko lanak hasi ziren. Tuberkulosiaren kontrako Andazarrateko osasun-etxea Asteasuko lurretan eraiki eta 1933ko ekainaren 1ean inauguratu zen. Osasun-zentro berri horrek kirurgia-zerbitzua ere bazuen. Inauguratu baino pixka bat lehenago, Mesedetako 15 ahizpa joan ziren zentrora. 3 mediku, barneko 2 praktikante, zerbitzuko 10 pertsona eta kapilau batekin batera, horiek osatzen zuten lantaldea.

Estatuak, Udalak eta Aldundiak zati berdinetan finantzatzen zuten osasun-zentroa. 1956ko martxoan osasun-zentroa udal-eskola bihurtu zen, gaixoak Zorroaga gainean inauguratutako osasun-etxera lekualdatu zituztenean.

Los centros antituberculosos

Como ya hemos tenido ocasión de comprobar, una de las preocupaciones principales de las autoridades sanitarias en esta época era el elevado número de personas afectadas de tuberculosis. También conocida como tisis y peste blanca, era una de las principales causas de mortalidad a comienzos del pasado siglo. Además de los esfuerzos en investigación de nuevos fármacos y de medidas preventivas, muchas ciudades optaron por crear centros dedicados exclusivamente a atender pacientes con esta patología.

La capital donostiarra no fue ajena a este problema. Coincidiendo con la celebración del II Congreso Español Internacional de la Tuberculosis, Alfonso XIII inauguró el 15 de septiembre de 1912 el Sanatorio de Nuestra Señora de las Mercedes, muy cerca de la ermita de la Virgen de Uba, en Ametzagaña, en lo que es hoy el barrio de Loiola. Este sanatorio fue creado por el Comité Local de la Lucha Antituberculosa por iniciativa del entonces alcalde donostiarra José Elósegui y con una importante financiación de la colonia vasco-argentina. La prensa local llegó a comparar el nuevo edificio con un hotel.

En 1931 el sanatorio fue transferido a la Junta de Beneficencia, que lo vendió en 1942 al Patronato Nacional Antituberculoso, dedicándose a la atención de mujeres. En el 53, al inaugurarse el Sanatorio Antituberculoso de Enfermedades del Tórax, que posteriormente se convertiría en el Hospital de Amara, el edificio se arrendó su utilización como Auxilio Social, mientras que las mujeres ingresadas fueron trasladadas al nuevo centro del Alto de Zorroaga.

Si Nuestra Señora de las Mercedes atendía a mujeres, en 1928 se iniciaron las obras de construcción del que iba a acoger a los hombres. El Sanatorio Antituberculoso de Andazarrate se levantó en terrenos de Asteasu y se inauguró el 1 de junio de 1933. Este nuevo centro sanitario contaba con servicio quirúrgico. Poco antes de la inauguración se incorporaron al centro 15 Hermanas Mercedarias, que junto a 3 médicos, 2 practicantes internos, 10 personas de servidumbre y 1 capellán, formaban su plantilla. Se financiaba a partes iguales entre el Estado, el ayuntamiento y la diputación. En marzo de 1956 se convirtió en escuelas municipales al trasladarse los enfermos al recién inaugurado sanatorio del Alto de Zorroaga.




Tuberkulosiaren kontrako artategi gehiago ere izan ziren Donostian: 1913tik aurrera aritu zen bat lanean Manteoko San Antonio Abad ospitalean, beste bat San Bartolome kalean, beste bat Pi eta Margall kalean —gaur egun Arrasate kalea dena—, eta gero Prim kalean. Eibarren, Tolosan eta Irunen ere izan ziren artategiak.

Ikusi dugun bezala, Donostia aitzindaria izan zen tuberkulosiaren aurkako borrokaren alderdi askotan, baina ez sorospen-zentroak sortzen soilik. Eizagirre doktoreak, esaterako, Donostian 1912an egin zen nazioarteko kongresuan Uruguayko ordezkariak egindako proposamena jaso eta martxan jarri zuen “Lorearen Jaia” deiturikoa. Egun horretan eskea egiten zen dirua biltzeko. Gero beste hiri batzuek jarraitu zioten zeregin horretan, esaterako, Bilbok edo Madrilak.

También existieron numerosos dispensarios antituberculosos tanto en San Sebastián, desde 1913 funcionaba uno en el Hospital San Antonio Abad en Manteo, otro en la calle San Bartolomé, otro en la calle Pi y Margall –hoy Arrasate–, luego en Prim. Había también otros dispensarios en Eibar, Tolosa e Irun.

San Sebastián, como hemos visto, fue pionera en muchos aspectos en la lucha contra la tuberculosis, pero no solamente en la creación de centros asistenciales sino que incluso el Dr. Eizagirre recogió la propuesta del representante de Uruguay en el ya citado congreso internacional celebrado en 1912 en la capital donostiarra y se puso en marcha la llamada “Fiesta de la Flor”, jornada en que se realizaba una cuestación para recabar fondos. Luego le seguirían otras ciudades como Bilbao o Madrid.





50eko hamarkadaren hasieran, Zorroaga gainak itxura negargarria zuen. Hantxe zegoen ozta-ozta zutik iraun zuen hormigoizko egitura. Hogei urte lehenago hasitako obrak gerra zibilak eten zituen eta aurreikusitako Donostiako ospitale handia zementu eta burdinazko armazoi hutsean geratu zen.

Biztanleen sorospen-premiekin, ordea, handitzen jarraitzen zuten eta ezinbestekoa zen proiektuari berriro heltzea. Baina instituzioek erronka horri berriro heltzea planteatzen zuten bitartean, aldundiak garai hartan oso ongi ikusia ez zen gai bati —gaixotasun mentalei, alegia— heltzeko premiarekin egin zuen topo.

Egia esan, 1934az geroztik martxan zegoen Donostiako Sorostoki Psikiatriko Probintziala, proiektatutako ospitale probintziala eraiki arte behin-behinekoz sortutakoa. Kontsultak artategian bertan eta etxean egiten ziren, eta lan didaktikoa, berriz, hitzaldien bitartez eta alkoholismoa, sifilia eta abar prebenitu eta kontrolatzeko planen bitartez bideratzen zen. 40ko hamarkadan, Aldundiak berriro heldu zion Zorroaga gainean ospitalea eraikitzeko asmoari. Hasteko, artategiaren orde zentro psikiatriko bat eraikitzeko erabakia hartu zuen 1944an. Handik gutxira jarri zen martxan Erietxe Psikiatriko Probintziala. Lehen urratsa izan zen.

Toraxeko Gaixotasunen ospitalea

Tuberkulosiari eta biriketako beste patologia batzuei aurre egiteko ahalegin guztiak alde batera utzita, Tuberkulosiaren kontrako Patronatu Nazionalak (TPN) Gipuzkoako osasun-etxe eta artategi guztiak zentro bakarrean biltzeko asmoa zuen.

A comienzos de los años 50, el Alto de Zorroaga presentaba un aspecto un tanto peculiar: una estructura de hormigón mantenida en pie a duras penas, ya que el inicio de las obras veinte años antes había sido interrumpido por la guerra civil y el proyectado gran hospital de San Sebastián se quedó en un almacén de cemento y hierros.

Sin embargo, las necesidades asistenciales de la población seguían aumentando y era necesario acometer de nuevo el proyecto. Mientras tanto, la Diputación se encontró con la necesidad de atender un área mal considerada en la época: las enfermedades mentales. En realidad, desde 1934 funcionaba un Dispensario Psiquiátrico Provincial de San Sebastián, creado provisionalmente hasta que se construyese el proyectado Hospital provincial. Este dispensario atendía consultas ambulatorias y a domicilio, aportando una labor didáctica por medio de charlas y planes de prevención y control del alcoholismo, sífilis, etc.

En los años 40, la Diputación retomó la idea de levantar un hospital en el Alto de Zorroaga y en 1944 acordó previamente construir un centro psiquiátrico que sustituyese al dispensario. El Sanatorio Psiquiátrico Provincial comenzó a funcionar poco después. Fue el primer paso.

Hospital de Enfermedades del Tórax

A pesar de todos los esfuerzos en combatir la tuberculosis y otras patologías pulmonares, el Patronato Nacional antituberculoso (PNA) tenía la intención de unir en un solo centro los sanatorios y dispensarios existentes en Gipuzkoa.



Aldundiak orubea eta eraikitako egitura laga zituen. 1947an 12 milioi pezetako aurrekontua onartu zen zentro berria egiteko eta 300 ohe aurreikusita zituen ospitale berria eraikitzeko lanak hasi ziren. Inaugurazio ofiziala 1953ko abuztuaren 12an egin zen arren, 1952ko udan ekin zion jarduerari. Ubako Nuestra Señora de las Mercedes emakumeentzako osasun-etxe gaixoak eta Groseko San Antonio Abad Ospitaleko Doker pabiloiko umeak ospitale berrira lekualdatu ziren. 1955ean Andazarrateko gizonezkoentzako osasun-etxe gaixoak eraman zituzten ospitalera. Bat-egitearen ondorioz, emakume, haur eta gizonezkoentzako gune berezituak zituen eraikin berrira lekualdatu ziren baita profesionalak ere. Medikuzuzendaritza bikoitza ezarri zen: alde batetik, Jose Luis Martínez de Salinas Salcedo doktorea —Andazarrateko artategikoa—, eta bestetik, Rafael Bartolomé Martínez De La Pera doktorea —Nuestra Señora de las Mercedes erietxekoa—. Jorge Muñiz Díaz izan zen lehen administratzailea eta sor Esperanza Goenaga, berriz, ospitalearen ardura hartu zuten Mesedetako ahizpen ordenako lehen ama nagusia.

Gipuzkoako Ospitale Probintzial berria

Lehen ikusi dugun bezala, 1888an inauguratutako Manteoko San Antonio Abad ospitalea aurki geratu zen txiki. Ongintza Batzordea laster hasi zen probintziako biztanle-kopuru gero eta handiagoarentzako ospitalea eraikitzeko aukerak aztertzen.

Ongintzako gaixoen sorospena udal-erantzukizuna izan zen 1937 arte, baina Gipuzkoako Kontzertu Ekonomikoa indargabetu zuen legearekin erakunde probintzialaren ardurapean geratu zen.

1957an Erizainen Eskola izateko aurreikusitako pabiloia Ospitale Probintzial gisa erabiltzea erabaki zen, 165 oherekin. Eraikina 1960ko abuztuaren 13an hasi zen funtzionatzen eta gune berean urte batzuk lehenago eraikitako zentro psikiatrikoaren ondoan jarri zen.

Hasiera batean, Luis Martín Santos psikiatraren eskuetan egon zen administrazio-zuzendaritza, aldameneko zentro psikiatrikoa ere berak zuzentzen baitzuen. Baina gero Carlos Elosegiri eskaini zitzaion zentroa zuzentzea, aurretik San Antonio Abad ospitalea zuzendu zuelako eta karguan eskarmentua zuelako. Manteon kokatutako osasun-zentro beretik lekualdatu ziren ospitale berrira Azoaga doktorea, oftalmologoa eta Irizar doktorea, laborategikoa. Jende berria ere sartu zen, esaterako, Mariano Arrazola doktorea, garai hartan Europan nagusi ziren neurokirurgiako teknika berriak sartu zituena. Zentro berriak, erietxe psikiatrikoa bereganatu ondoren, Gipuzkoako Ospitale Probintziala izena hartu zuen.

En contacto con la Diputación, que cedió el solar y la estructura ya edificada, se aprobó en 1947 un presupuesto de 12 millones de pesetas, unos 71.000 euros,

para el nuevo centro y se inició la construcción del nuevo hospital en el que estaba previsto que contase con 300 camas. Comenzó su actividad en el verano de 1952, aunque su inauguración oficial se celebró el 12 de agosto de 1953. Las pacientes del sanatorio de mujeres de Nuestra Señora de las Mercedes en Uba y los niños del pabellón infantil Doker del Hospital San Antonio Abad de Gros se trasladaron al nuevo hospital. En 1955 se procedió al ingreso de los pacientes del sanatorio de hombres de Andazarrate. La fusión supuso también el traslado de sus profesionales al nuevo edificio, que tenía espacios diferenciados para mujeres, niños y hombres. Se estableció una doble dirección médica con el Dr. José Luis Martínez de Salinas y Salcedo –procedente del sanatorio de Andazarrate- y el Dr. Rafael Bartolomé Martínez De La Pera (del Sanatorio Nuestra Señora de las Mercedes-. El primer administrador fue Jorge Muñiz Díaz y la primera madre superiora, de la orden de las Hermanas Mercedarias que se hicieron cargo del hospital, Sor Esperanza Goenaga.

El nuevo Hospital Provincial de Guipúzcoa

Ya hemos visto cómo el Hospital San Antonio Abad ubicado en Manteo, inaugurado en 1888, se quedó pronto pequeño, por lo que la Junta de Beneficencia comenzó rápidamente a estudiar la posibilidad de levantar un hospital dirigido a la cada vez mayor población de la provincia, ya que la asistencia a los enfermos benéficos había sido hasta el 37 responsabilidad municipal, pero con la ley que derogó el Concierto Económico en Gipuzkoa, pasó a ser cargo de la institución provincial.

En 1957 se acordó utilizar el pabellón previsto para Escuela de Enfermeras y dedicarlo a Hospital Provincial, con 165 camas. Este edificio inició su actividad en 1960 y se situó junto al centro psiquiátrico construido en esa misma zona años antes.

En un primer momento, la dirección administrativa del centro correspondió al psiquiatra Luis Martín- Santos, que dirigía el sanatorio psiquiátrico, pero finalmente se decidió ofrecer la dirección del centro a Carlos Elósegui, que había dirigido el Hospital San Antonio Abad y contaba con experiencia. Del mismo centro sanitario ubicado en Manteo, también se trasladaron al nuevo hospital el oftalmólogo Dr. Azoaga o el responsable del laboratorio el Dr. Irizar. Pero también hubo algunas incorporaciones, como es el caso de del Dr. Mariano Arrázola, quien introdujo las nuevas técnicas de neurocirugía que entonces imperaban en Europa. El nuevo centro, al que se agregó el sanatorio psiquiátrico se denominó Hospital Provincial de Guipúzcoa.



Arantzazuko Ama ospitalea

